



9-KOSTUEN EGITURA

9.1 Kostu finkoen azalpena:

Mood Pet-en kostu finkoak hauek dira: Lehenik, webgunea zaintzeko eta martxan edukitzeko gastua agertzen da, hilero 33 euro ingurukoa. Ondoren biltegi txiki bat alokatzeak dakarren kostua, hilean 900 euro, eta urte osoan berdin mantentzen da. Gero, SEUR bidalketa-planaren prezioa agertzen da; hilabete batetik bestera pixka bat aldatzen da, 27 eta 35 euro artean. Jarraian, erabiltzen diren software edo programen kuota dago, hilean 15 eurokoa. Domeinuaren kostua ere agertzen da, hilero 1 euro besterik ez. Horrez gain, marketing digitalaren oinarritzko gastua dago, hilean 70 eurokoa. Gastu handiena langilearen soldata da, hilean 4.400 edo 4.800 euro, hilabete batzuetan kopuruak apur bat aldatzen direlako. Amaitzeko, ura ordaintzeko gastua dago, 30 edo 40 eurokoa. Guztira gure kostu finkoak, urtean 66.211,00 €-koa izango da.

LOKALA: <https://www.idealista.com/alquiler-locales/aduna-guipuzcoa/>

9.2 Kostu aldakorren azalpena:

Mood Pet-en kostu aldakorrak dira collar bakoitza ekoizteko behar diren osagaien unitateko prezioak. Taulan agertzen diren prezioak ez dira hilabete osoan gastatzen dugun kopuruak, baizik eta pieza bakoitzak daukan kostua. Adibidez, collar bat egiteko kostu hauek ditu: LED argiak (1,50 €), sentsorea (4,50 €), lepokoaren materiala (1,20 €), metal eraztuna (0,25 €) eta clip/itxiera (0,30 €). Paketeriaren kostua ere unitatean dago (0,50 €), eta bidalketak ere gauza bera, bezeroari produktua bidaltzeak 5,00 € kostatzen du pieza bakoitzeko.

Azkenik, plataformaren komisioak ere (1,00 €) unitatean kalkulatzen dira, Shopify edo PayPal bezalako plataformek salmenta bakoitzeko kobratzen duten komisioaren arabera. Taulan agertzen diren prezio guztiak collar bakoitzaren kostu zehatza dira, eta ekoizten dugun kopurua (adibidez, 50 unitate hilabetean) biderkatuz ateratzen da gastu totala.



9.3 Hasierako kostuen azalpena:

Prototipoak eta Diseinua

Hasierako inbertsioetan, lehenik prototipo teknikoak egingo ditugu produktuaren teknologia ondo funtzionatzeko duela eta maskotentzat segurua dela egiaztatzeko; horretarako 120 € erabiliko ditugu. Ondoren, diseinu industrial eta teknikoak prestatuko dugu (forma, tamaina, koloreak eta barne-teknologiaren kokapena), produktu profesional eta erakargarria lortzeko. Horrek 200 €ko kostua izango du.

Lokala eta Egokitzapena

Lan-espazioa egokitu eta beharrezko dekorazioa eta altzariak jartzeko 1.100 € beharko dira, prototipoak sortzeko eta stocka kudeatzeko espazio antolatu eta egokia ziurtatzeko. Gainera, lokalaren fiantza ordaintzeko 900 € erabiliko dira, alokairu-prozesuak eskatzen duen bermeen artean.

Stock-a eta Material Osagarria

Lehen stock-a osatzeko 50 lepoko ekoiztuko dira, eta horrek 900 €ko inbertsioa eskatuko du. Horrekin lehen salmentak egitea eta bezeroen feedback-a lortzea posible izango da. Produktuak gordetzeko eta entregatzeko beharrezko material osagarriak (kaxak, antolaketa-elementuak...) 60 € gehituko dira.

Teknologia eta Marka-irudia

Webgune profesional eta sinple bat sortzeko 300 € inbertituko dira, produktua aurkezteko eta bezeroekin kontaktua izateko. Marka-irudia (logoa eta diseinu grafikoa) sortzeko 70 € erabiliko dira, identitate bisual erraz ezagutzeko modukoa lortzeko. Horrez gain, ordenagailu edo gailu informatiko bat erosteko 1.200 € beharko dira, kudeaketa, diseinuak eta marketina modu eraginkorrean lantzeko.

Makinaria eta Fabrikazioa

Lepokoak muntatzeko eta fabrikatzeko beharrezko makinaria eta tresneria erosteko 1.200 € erabiliko dira, ekoizpen-prozesua modu autonomo eta egonkorrean egiteko.



Publizitatea eta Alderdi Legalak

Hasierako publizitatea egiteko 150 € gastatuko dira, sare sozialetan produktua ezagutarazteko eta bezero potentzialengana iristeko. Azkenik, erregistro eta tramite legalak ordaintzeko 120 € beharko dira, enpresa lege-esparru egokian funtzionatzeko.

9.4 ITO puntua:

Dirua irabazten noiz hasiko garen jakiteko, ito puntua kalkulatu dugu. Horretarako, kostu aldakorrak unitateko, produktua zenbatetan salduko dugu eta kostu finkoak hartu ditugu. Datu horien bitartez, urtean 399,4 lepoko egiten ditugunean, irabaziak izaten hasiko gara kalkulo hauen bitartez dena ondo joaten bada. Gure ustez abuztuan dirua irabazten hasiko garela uste dugu.

https://docs.google.com/spreadsheets/d/1NdwKZG_X5P1uIIZu-ZBC8aZHgpPZdqA6gJ8slQP01Ek/edit?gid=0#gid=0